



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

Data: 2021/01/13 **Bilera zenbakia:** 17

Bilera ordua eta lekua: 19:00etan Udaletxean

Parte-hartzaileak: Tere (jubilatua), Oskarbi (guraso elkarte), Nagore (zinegotzia) eta Nerea (teknikaria)

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Aurreko bilerako lanak

- *2021eko jubilatutako ekintzak iragartzea apuntatu:* Martxan hasi diren arren, orain ez da ezer iragarriko aipatu genuen bezala. Jende muga dagoenez eta adibidez ginasiako taldean 6 daudenez iada, ez du zentzurik. 2021eko irailean, egoeraren arabera, iragarriko da aurreikusten diren tailerrak (web, pantaila, gutun eta aldizkariaren bidez)
- *Kirol asteko zabalkundea egin, egin zen*
- *Tereren kezkak udal taldeari igorri (parkeko txakurrak, karreapeko lehioak):* Txakur gorotzak jasotzeko panelak jarri dira, orain ea jendeak kasu egiten duen.
- *Enekorekin egon, egin zen*

2. Kultur ekintzen balorazio

Aurreko bileratik ona, 7 ekintza egin dira:

Hankaz gora ipuin kontaketa

Kirol astea: orientazio froga, emakumeak eta kirola mahaingurua, eskalada jasangarria, kirol egokitua saioa, Eneko Dorronsororen diska aurkezpena, Maite Franko ipuin kontalaria, Orientazio froga Olentzero eta Maridomingi eta kimikarin orientazio froga.

Orokorrean balorazio ona jaso dute guztiek, galdetegietan ateratako erantzunak azaldu ditugu gainera. Web orrian jasoko dira ekintza guztien balorazioak.

3. 2021eko Kultur agenda

- Galdetegi bat egiten dena baloratzeko eta proposamenak jasotzeko (urtarrila)
- Urteko kultur agenda proposamena prestatu (otsaila hasiera)
- Kultura lan taldean programazio hau adostu (otsailak 10)

- Herri bizitzan aurkeztu

Asmo hau dagoela azaldu da eta egoki ikusi da, ea otsaileko batzordean ekintzen programazioa aurkezteko moduan gauden (proposamen orokor bat gutxienez)

4. Aurrekontuak

Nagorek azaldu dizkigu aurrekontuen egoera nola dagoen, gauza asko egin nahi dira eta lehentasunak eta aukerak aztertzen dabiltz. Printzipioz elkartetatik eginiko eskaerak kontuan izango dira aurrekontu partidetan.

5. Besteak

- Aurrekontuetaz ari ginela parkeko gaia atera da eta Oskarrik azaldu digu beheko garajeetan ura filtratzen dela parkeko malda egin zenetik, kontuan izateko aipatu du, orain obrak egin behar badira, tela asfaltikoa etb. jartzeko edo.
- Gazteriatik hezitzaileen kontratazioa, egin zen hausnarketaren lanketan asteko, asmoa azaldu da. Aurrekontuetan txertatu da partida bat, orain kontrataziorako irizpideak zehaztuko dira.
- Guraso elkarte- udalekuak: Bilera dugu hurrengo astean, udalekuen gaia tratatzen asteko.
- Txokoko ardura guraso elkarteak, beraiek txukundu dute: oso txukun gelditu dira. Atean oraindik botatzeko kutxa batzuk omen daude. Jabiri galdetu behar zaio botatzeko diren.
- Dendako ustiapena: Nagorek egungo egoera azaldu digu. Hautagai bat badago eta beste bat dokumentazioa aurkezteko faltan dagoena.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Akta egin eta bidali</i>	<i>Nerea</i>	
<i>Jabiri txokoko kajak botatzeko diren edo ez</i>	<i>Nagore</i>	
<i>Kultur ekintzen plana</i>	<i>Kultura lantaldea, Nerea</i>	
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera : Otsailak 10, asteazkena 19:00		